

# JOXEMIEL BARANDIARANI

Mikel Mendizabal 1986

Bertsoak nahi dizkiot  
norbaiti ipini  
eta bere lanaren  
saritzat eskaini  
merezi dituela  
seguru nago ni  
jakin nahi ba dezue  
esango det zeini  
Ataungo Joxemigel  
Barandiarani.

Nork ez du entzun izan  
beraren izena  
jakinduri munduan  
goren dabilena  
aztertu du sakonki  
euskal aztarrena  
Euskalerrria eta  
bere izate dena  
munduaren aurrean  
azaldu duena.

Aztertu dezu sakon  
euskal harrobia  
eta argitaratu  
hainbat teoria  
herri honek nahiz izan  
galtzeko zoria  
zure bidez gugana  
garbi dator ia  
miloikada urteak  
duten historia.

Herria ohartu da  
azkenik zurekin  
omenaldiak egin  
dizkizu behinepin  
herriko seme kuttun  
hautatu ta egin  
Ataunek ere hartu  
dezake atsegin  
zure bigarren ama  
izatearekin.

Gai bezela bera det  
nik erabakia  
goierritar naizen ez  
ba det aitzakia  
bera aipatzea da  
ustez egokia  
ia aurki dedan  
behar den tokia  
ondratzeko Ataungo  
jaungoiko txikia.

Zure lana dudatan  
ez du jarri inork  
zer balioa duen  
badaki edonork  
geure izakerataz  
kezkatu gaudenok  
Euskalerrriak eta  
euskaldun geranok  
Joxemigeli zor bat  
badiogu denok.

Lehenbizi apaizgintzan  
eta gero maisu  
lanari eskainita  
zabiltza beti zu  
bizi bakarra eta  
hainbeste serbitzu  
zureganatu dira  
hamaika jakintsu  
zer balio daukazu  
zeuk ere ez dakizu.

Euskaldun garbia ta  
sortzez ataudarra  
gizon txikia baina  
talentuz azkarra  
zure lana ordaintzen  
degu zail xamarra  
agur ta zorionak  
arbaso zaharra  
sekulan itzaliko  
ez zeran izarra.

TRADUCCION LIBRE AL CASTELLANO CON PERMISO DEL AUTOR

José Zufiaurre

Deseo dedicarle  
versos a alguien  
y ofrecérselos como  
premio a su trabajo,  
yo estoy seguro de  
que los merece  
si quereis saberlo  
os diré a quién  
a José Miguel Barandiaran  
de Ataun.

Quién no ha escuchado  
su nombre  
que anda en lo más alto en  
el mundo de la sabiduría,  
ha investigado a fondo  
los vestigios vascos  
Euskalerrria y toda  
su manera de ser  
lo que ha mostrado  
ante el mundo.

Ha estudiado a fondo  
la cantera vasca  
y ha aclarado  
tantas teorías,  
aunque este pueblo estaba  
en riesgo de perderse  
gracias a usted  
tenemos ya clara  
la historia que tienen  
millones de años.

Por fin el pueblo se ha  
dado cuenta de su mérito  
y al menos le ha hecho  
diversos homenajes,  
elegirle y hacerle  
hijo predilecto del pueblo  
Ataun también puede  
tener la satisfacción  
en ser como  
su segunda madre.

He decidido tomarle  
como tema  
pues como Goierriarra  
tengo excusa,  
creo es procedente  
tratar de él  
a ver si encuentro  
la forma apropiada  
para honrar al pequeño  
dios de Ataun.

Nadie ha puesto en duda  
el trabajo de usted  
cuaquiera conoce  
el valor del mismo,  
quienes nos preocupamos  
por nuestra forma de ser  
Euskalerrria y los que  
somos vascos  
tenemos una deuda  
con José Miguel

Primero de sacerdote  
y después de profesor  
siempre está usted  
entregado al trabajo,  
en tan solo una vida  
tanto trabajo y servicio  
han venido a verle  
numerosos sabios  
ni usted mismo sabe  
el mérito que tiene.

Vasco noble  
y oriundo de Ataun  
corto en estatura  
pero largo en sabiduría,  
tenemos bastante difícil  
en pagar su trabajo  
saludos y felicidad  
ancestro antiguo  
estrella que jamás  
se apagará usted.